



MENDIKO UDALEKUA 17

ARALAR EZAGUTUZ - TXINDOKI EXPEDITION

1. SARRERA

Mendia inguru naturalik nagusienetakoa da. Mendizaleek bertan esperimentatzen dituzten bizipenak oso sakonak izaten dira benetan. Horregatik, mendizaletasunaren praktikak estimulatu dituen eta mendizaleei transmititzen dizkien giza balioak oso onuragarriak gertatzen zaizkie bizitzan zeharreko bere ibilbide pertsonalean, aldi berean, beste kirol batzuetan aurkitzen oso zailak gertatzen direnak.

Kiroletakoekin batera, giza balio hauek gaztetxoekin zenbat eta goizago lan egiten hasi orduan eta onuragarriagoa izango da bere etorkizuneko garapenerako.

Uda urtaroa oso aproposa da gaztetxoekin mendizaletasunaren balioetan gehiago sakontzeko, opor garaia aukera ematen baitu adiskideekin aste batetan zehar bizikidetzeko. Jarraian aurkeztzen dira mendiko udaleku honen gorabeherak.

2. HELBURUAK

- **Helburu orokorra:**
 - Mendizaletasunaren giza eta kirol balioak gaztetxoei transmititzea eta jarduera mota orotakoak ezagutaraztea era ludikoaz.
- **Helburu zehatzak:**
 - Kolaborazioa eta taldean desberdintasun indibidualak errespetatzen ikastea.
 - Gainerakoekin partekatzea eta behar duenari laguntzea bultzatzea.
 - Bizikidetasunaren bitartez adiskidetasuna sustatzea.
 - Ingurumena orohar eta mendia bereziki errespetatzen eta zaintzen barneratzea.
 - Mendian praktikatu daitezkeen jarduera mota erakargarriak ezagutzea.

3. JARDUERAK

<ul style="list-style-type: none">• Eskalada eta rapela• Espeleologia• Orientazioa• Arroilak• Zeharkaldia• Txindokirako eta beste tontorretarako igoaldiak• Izarren behaketa	<ul style="list-style-type: none">• Gaueko ibilaldia• Artzaien bizimodua• Eraikuntza megalitikoa• Geologia, glaziareek sortutako bailarak• Mehategien historia• Barandiaran Museoa	<ul style="list-style-type: none">• Abenturako zuhaitz parkea• Kanpin dendan muntaketa• Ingurumenaren zainketa• Mendizale ospetsuen hitzaldiak• Kanpin dendetan eta aterpean gaua pasa
--	---	--

4. DATAK

- 2017ko uztailaren 10etik 16ra.

5. PARTE HARTZAILEAK

- 2003 eta 2004an jaiotako neska eta mutilentzat.

6. MATRIKULA

- 180 € (dena barne: begiraleak, lojamendua, otorduak, materiala, museo eta parkeetarako sarrerak, eta abar).
- Bidaia: joan etorria nork bere kabuz.